

2010EKO URTARRILAREN 29KO UDALBATZA OSOAK EGINDAKO
OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Urtarrila

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Malu Valles Fernandez
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Fernando Boada Gonzalez
- Alfonso Segade Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Ana María Crespo Blanco
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julene Hidalgo Pérez
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEA: Joan Martin Aldaregia Etxebarria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2009ko abenduaren 18an, egindako ohiko batzaraldiaren aktaren berri eman ondoren, bildutakoek ondorengoa esan dute:

Julio Herreros jaunak (PP) adierazi du ez duela akta onartuko bilera horretan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu zuelako.

Fernando Boada jaunak aktan azaltzen diren akatsen berri ematen du eta eskatzen du akats horiek zuzentzeko. Akatsak hauek dira:

- Página 6, donde dice que “el partido socialista firma un acuerdo con el partido socialista vasco”, debe decir que: “el partido socialista firma un acuerdo con el partido nacionalista vasco”.
- Página 7: donde dice “Conservación de parques, de 10.000 a 60.000.”, debe decir: “Conservación de parques, de 10.000 a 6.000.”
- En la página 4, del acta en bilingüe, en el texto en castellano, debe decir: “El gasto corriente también se reduce en un 4,5%. Resulta un importe, de aproximadamente 10.864.000,00.”

Zuzenketak egitea onartzen da eta horren ondorioz, beste guztiek aktarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin akta onartu da.

2.- ITOLA II, 48 AREA. Irizpide eta helburuak onartzea eta hasierako onespena ematea, Itola II, 48 areari buruzko Arau Subsidiarioen aldaketari.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak hirigintza batzordeak 2010eko urtarrilaren 25ean egindako proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Itola II, 48 Areako Arau Subsidiarioen aldaketarekiko irizpide eta helburuak zehaztea eta hasierako onespena ematea.

AURREKARIAK

Ekainaren 30eko 2/2006 Zoru eta Hirigintzaren Legearen 90. artikulua arabera, Itola II, 48. Areako Arau Subsidiarioen aldaketarekiko Aurrerakina bi hilabeteko epean jendaurrean jarri zen, GAON, Diario Vascon eta Berrrian 2009ko uztailaren 23, 17 eta 14an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz, alegazio eta iradokizunak aurkezteko.

Halaber, Beasaingo udalerriarekin muga egiten dituen, Azpeitia, Beizama, Bidegoian, Ezkio-Itsaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Olaberria, Ordizia eta Ormaiztegi udalteei ere Aurrerakina bidali zen ezagutu ahal izateko.

Aipatutako Aurrerakinari buruz, txostena eskatu zen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumenaren Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritzari eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunea garatzeko departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari eta Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuei.

Alegazio eta iradokizunak aurkezteko epean ez da batere aurkeztu eta informazio eskaerari erantzunez bakarrik Azpeitiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura departamentuak erantzuna eman dute lehenengoak esanez ez dagoela inolako eragozpenik eta bigarrenak adieraziz ez dagoela kultur arloan inolako elementurik lan horiegatik eragina izango duenik.

Urriaren 5ean sarrera izan zuen Ingurugiro Inpaktuari buruzko txostenak eta Itola II, 48. Areako Arau Subsidiarioen aldaketa-dokumentua egokitu ondoren, 2009ko azaroaren 6ko datarekin eskatzea beharrezkoa den alde aurreko txostena eskatu zen. Honen berri 2010eko urtarrilaren 18an izan dugu eta ondorengo adierazten du:

- Aldaketak zehatz-mehatz adierazi behar du nola eta zer neurritan hartu diren kontuan honekin batera doan erreferentziazko dokumentuko 2.3. atalean aipatutako irizpideak, baita proposamenaren ingurumen-helburuak zeintzuk diren ere.*
- IEEBren ikerketak alternatiben ingurumen-azterketari dagokion atala bete beharko du. Horrezaz gain, bereziki erreparatu beharko dio O alternatibari, txosten honetako 2.3.3. atalean azaldu bezala.*
- IEEBren ikerketa aldatzekotan, txosten honetako 2.3.4., 2.3.5 y 2.3.6 ataletan azaldutako arauak jarraitu beharko zaie.*

Horren ondorioz, Hirigintza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo proposamena egiten dio (apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 22,2c) artikulua ematen dio eskuduntza Udalbatza Osoari eta onartzeko gehiengo absolutua behar da, Lege horretako 47,3i) artikulua arabera):

Lehenik. *Itola II, 48. Areako Arau Subsidiarioen aldaketaren Aurrerakinean ezarritako irizpide eta helburuak onartzea, Ingurugiro Inpaktuaren alde aurreko txostena emateari buruzko 2009ko abenduaren 11ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezartzen diren baldintzak jasoz.*

Bigarren. *Itola II, 48. Areako Arau Subsidiarioen aldaketarekiko dokumentuari hasierako onespina ematea Ingurugiro Inpaktuaren alde aurreko txostena emateari buruzko 2009ko abenduaren 11ko Ingurumen Sailburuordetzaren Ebazpenean ezartzen diren baldintzekin eta jendaurrean jartzea, GAOn, Diario Vascon eta Berrian azkena iragarkia argitaratzen denetik hilabeteko epean, bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko.*

Hirugarren. Dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, Gipuzkoako errepide eta bideen azaroaren 25eko 17/1994 Foru Arauaren 94. artikulua aipatzen duen txostena emateko eskatuz.

Laugarren. Ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7k) artikulua adierazten duen txostena emateko eskatuz, Uraren Ur Agentziari ere dokumentua igortzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- AUZOETAKO HIRI ANTOLAKUNTZAREN EGITASMO BEREZIA.

Gudugarreta, Arriaran, Garin, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta auzoetako Hiri Antolakuntzaren Egitasmo Bereziarekiko alegazioak ebatzea eta behin betiko onespina ematea.

Aitor Aldasoro, hirigintza batzordeko lehendakariak, hirigintza batzordeak 2010eko urtarrilaren 25ean egindako proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

2009ko azaroaren 4an Alkateak emandako Ebazpenaren bidez, hasierako onespina eman zitzaion, Gudugarreta, Arriarán, Garín, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta auzoetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari. Espedientea jendaurrean jarri zen hogeitasei laneguneko epean, 2009ko azaroaren 6an eta 10ean Berrian, Diario Vascon, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz.

Epe horretan, honako hauek sinatutako alegazioak aurkeztu dira:

- Juan Garín Aldasoro.
- Antonio Berbel.

Alegazio horiei buruz, udal arkitektoak 2010eko urtarrilaren 25ean txostena eman du.

Aldi berean, dokumentua, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretako Departamentuari eta Uraren Euskal Agentziari bidali zitzaion, dagozkien txostenak emateko eskatuz.

2009ko azaroaren 17ko datarekin, Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko txostena eman zen. Uraren Euskal Agentziak, aldiz, orain arte ez du inolako txostenik bidali, baina kontuan izanik ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7k) artikulua dioena, aldekoa dela ulertu behar da, bi hilabeteko epean (2010eko urtarrilaren 7an amaitu zen) jakinarazi ez delako.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. Aurkeztutako alegazioak ebaztea eta ez onartzea txosten teknikoaren arabera.

Bigarren. Gudugarreta, Arriarán, Garín, Astigarreta eta Aratz-Matxinbenta auzoetako Hiri Antolamenduko Plan Bereziari behin betiko onespena ematea.

Hirugarren. Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

Laugarren. Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

4.- IBILGAILUEI BURUZKO ORDENANTZA FISKALA. Aldaketari hasierako onespena ematea.

Alkatea jaunak, 2010eko urtarrilaren 25an hazienda batzordeak egindako proposamenaren berri eman du:

“**GAIA.**- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren eranskinaren aldaketa.

Zenbait zergetan aldaketa jakin batzuk sartzen dituen abenduaren 23ko, 4/2009 Foru Arauak, 14/1989 Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko Zergaren 2 eta 4 artikulua aldatzen ditu.

Hazienda Batzordeak 2010eko urtarrilaren 25ean egindako bileran, indarrean dauden kuotak gehikuntzarik izan ez dezaten, Udalbatzari ondorengo PROPOSAMENA egitea erabakitzen du:

Honekin batera doan Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren eranskina onartzea. Aldaketak ondorengoak izanik:

a) gutxieneko kuotei aplikatzeko koefizienteak.

b) Salbuespenei buruzko e) atala 4/2009 Foru Arauak xedatutakora egokitze.”

TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN
GAINEKO ZERGA

A) TURISMOAK	<i>Koef.</i>	<u><i>Euroak</i></u>
<i>9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak</i>	<i>1,4087</i>	<i>25,91</i>
<i>9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak</i>	<i>1,9213</i>	<i>70,66</i>
<i>12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak</i>	<i>2,1569</i>	<i>132,22</i>
<i>14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak</i>	<i>1,9213</i>	<i>164,88</i>
<i>16tik 19,99 zaldi fiskaletara bitartekoak</i>	<i>1,7932</i>	<i>197,86</i>
<i>20 zaldi fiskal eta gorakoak</i>	<i>1,7941</i>	<i>241,95</i>
 B) AUTOBUSAK		
<i>21 plaza baino gutxiagokoak</i>	<i>1,9794</i>	<i>164,88</i>
<i>21etik 50 plaza bitartekoak</i>	<i>1,9787</i>	<i>234,76</i>
<i>50 plaza baino gehiagokoak</i>	<i>1,9785</i>	<i>293,41</i>
 C) KAMIOAK		
<i>1.000kg. baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak</i>	<i>1,9780</i>	<i>83,63</i>
<i>1.000tik 2.999kg.tara bitarteko karga erabilgarrikoak</i>	<i>1,9794</i>	<i>164,88</i>
<i>2.999tik 9.999kg-tara bitarteko karga erabilgarrikoak</i>	<i>1,9787</i>	<i>234,76</i>
<i>9.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak</i>	<i>1,9785</i>	<i>293,41</i>

D) TRAKTOREAK

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	1,9843	35,06
16tik 25 zaldi fiskaletara bitartekoak	1,9761	54,88
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	1,9794	164,88

E) TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEK ARRASTEAN ERAMANDAKO ATOI ETA ERDI-ATOIAK

750 kg.tik gora eta 1000 baino gutxiagoko karga erabilgarrikoa	1,9843	35,06
1.000tik 2.999kg tara bitarteko karga erabilgarrikoak	1,9761	54,88
2.999kg. baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	1,9794	164,88

F) GAINERAKO IBILIGAILUAK

Ziklomotoreak	1,9334	8,72
125 z.k.tarainoko motozikletak	1,9334	8,72
125etik 250 z.k.tarainoko motozikletak	1,9484	15,04
250etik 500 z.k.tarainoko motozikletak	1,9338	29,88
500etik 1.000 z.k.tarainoko motozikletak	1,9412	59,98
1.000 z.k. baino gehiagoko motozikletak	1,9409	119,93

SALBUESPENAK

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak. Hau da, 350 kg-tik gorako tararik ez duten ibilgailuak, beren eraikuntzagatik toki lauan 45 km. orduko abiadura gainditu ezin dutenean eta arazo edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonak erabiltzeko bereziki proiektatu eta eraiki direnean (eta ez bakarrik egokitu), pertsona desgaituen izenean matrikulatuta daudenean.

Era berean, salbuespena daude 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, baldin eta desgaituen izenean matrikulatuta egonik beraiek ez beste inork erabiltzeko badira. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona desgaituek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira pertsona desgaitutzat:

a) Minusbaliotasun maila 100eko 33koa edo handiagoa eta 100eko 65ekoa baino txikiagoa duten pertsonak, mugikortasun murriztuko egoeran badaude. Mugikortasun murriztua dutela ulertuko da abenduaren 23ko 1.971/1999 Errege Dekretuak, minusbaliotasun maila aitortu, ezarri eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoak, III. eranskinean jaso-tzen duen baremoaren A, B edo C letretako egoeretan sartuta daudenean edo baremo horren D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dituztenean.

b) Minusbaliotasun maila 100eko 65ekoa edo handiagoa duten pertsonak.

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

2. Artikulu honen 1 apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu

ahal izateko, interesatuek eskaera bat aurkeztu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazio honek salbuespena onartu ondoren, agiri bat luzatuko du hura eman dela frogatzeko.

3. Aurreko apartatuan jasotakoaren ondorioetarako, eta zergaz salbuesteko eskaera Udaletxeko Erregistro Orokorrean idatziz aurkeztu. Eskaerari honako agiriok erantsiko dizkiote:

a) Ibilgailuak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat direnean edo pertsona desgaituen izenean eta horiek bakarrik erabiltzeko matrikulatuta daudenean:

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Gizartekintzak edo bere ordeztu diharduen erakunde edo agintari administratiboak luzatutako ziurtagiri originala.
- Pertsona desgaituen izenean matrikulatutako ibilgailuen kasuan: erabilpen eskusiboaren zinpeko aitortpena.

b) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makinak badira:

- Ibilgailuaren Zirkulazio Baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako Makineria inskribatzekok Kartilaren fotokopia edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentuko Nekazaritzako Makineriaren Erroldan alta hartu izanaren frogagiria, nahitaez ibilgailuaren titularrean izenean luzatuta.

Zergen urteko erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen aurkeztutako salbuespen eskariak soilik izango dira aplikaziozkoak ezarpen urtean, edo, ibilgailu berrien alta kasua balitz, aitortpen-likidazioaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasitako hilabete bateko epean eskatutakoak. Gainontzeko kasuetan salbuespenak hurrengo urtetik aurrera aplikatu dira eta ez dute atzera eraginik izango.

HOBARIAK

1. Izaera orokorrean, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala zergaren urteko erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen edo ibilgailu berrien alta kasuan, aitortpen-likidazioaren jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatzen hasitako hilabete bateko epean eskatzen bada, ekitaldi horretan aplikatuko da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzintasuna dutenek % 100(e)ko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Hobariaz gozatu ahal izateko eskatu egin beharko da eta horretarako den eskubidea frogatuz (ibilgailuaren antzintasuna frogatu, alegia).

3. Aurreko 2 zenbakian aipatutako hobaria zerga kuotari aplikatuko zaio."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

5.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN ZERGA.

Birgaitze Egitasmoaren inguruan Arana kaleko jabetza erkidegoek eskatutako hobaria.

Alkatea jaunak, 2010eko urtarrilaren 25an hazienda batzordeak egindako proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Arana Kaleko Birgaitze Plan Bereziaren eremuko jabekideek egiten dituzten zaharberritze lanengatiko Eraikuntza Zergaren gaineko hobaria.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, udalaren interes bereziko obrak dira, 2008ko martxoaren 18an Gobernu Batzordeak, zuen J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak kontratatze hartutako erabakiak egiaztatzen duen moduan eta beraz, Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

Arana Kaleko Birgaitze Plan Bereziaren eremuko jabekideek egiten dituzten zaharberritze lanak egiteko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

6.- ABALA EMATEA. Beasain Lantzen, S.A.ren alde abala ematea.

Alkatea jaunak, 2010eko urtarrilaren 25an hazienda batzordeak egindako proposamenaren berri eman du:

“GAIA.- Beasain Lantzen, S.A.ren aldeko abala.

Beasain Lantzen, S.A.ko Administrazio Kontseiluak, 2.010eko urtarrilaren 22an egindako bileran, Beasaingo Udalari abala eskatzea erabaki zuen NAFARROAKO RURAL KUTXArekin formalizatu behar duen 1.900.000,00 euroko maileguaren berme gisa.

Horren aurrean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:

Beasain Lantzen, S.A. abalatzea NAFARROAKO RURAL KUTXArekin aurrean ondorengo baldintzetan formalizatu behar duen maileguaren berme gisa:

Epea: 3 urte.

Interes tasa: euribor + %1,25

Irekitze komisioa: %0,25

Amortizazio komisioa: %0

Amortizazioa: epe bukaeran

Likidazioa: hiruhilero

Bermea: Udalaren abala"

Alkatea jaunak: "Se han puesto tres años porque durante ese tiempo el ámbito de Itola II, va a estar ocupado por las obras del Tren de Alta Velocidad."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko iritzi hauek azaldu dituzte:

PP, EB eta ALKARBIDEko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE): "Nosotros tal y como lo expresamos en Beasain Lantzen, en la comisión de hacienda y hoy en el pleno, vamos a votar en contra. Cuando se presentaron los presupuestos de Beasain Lantzen, decíamos que eran "humo" y que estaban basados en una irrealidad. Efectivamente se demuestra que aquellos posibles ingresos no se van a poder percibir y eso obliga a que otra vez se tenga que hacer uso del crédito, lo cual supone un mayor gasto, en una aventura que el Ayuntamiento y Beasain Lantzen, a través de ESARBE, empresa que gestiona la Sociedad, se lanzó como el resto de empresas que se mueven en torno a la construcción, pensando que íbamos a tener una época de bonanza. Nos metimos en aventuras que no eran las propias de promoción pública para las que se creó Beasain Lantzen, con las cuales si hubiéramos estado de acuerdo. Durante el período que lleva contratada ESARBE, por Beasain Lantzen, se puede decir que en todas las obras que ha ido ejecutando, el 6% del gasto del servicio, ha representado casi dos millones de euros. Sin embargo, cuando es preciso avalar, tiene que ser el Ayuntamiento el que lo haga. Probablemente es la única forma legal de hacerlo, pero nosotros no estamos de acuerdo con este planteamiento, y por eso vamos a votar en contra."

Alkatea jaunak (EAJ): “Agradezco tu intervención Fernando. Quizás el mes que viene ese humo vaya remitiendo. Tenemos casi contratada la venta de 800 m². Por otra parte VISESA, está cobrando la gestión en sus actuaciones urbanísticas entre un 8% y un 9%. El 6% era lo que salió a concurso y era lo más barato. En este momento también lo es. Por otra parte, como sabrás las eléctricas tienen una deuda histórica y hasta este momento les avalaban los bancos, pero ahora los bancos han exigido un aval al Estado y el Estado ha avalado más de cien millones. Tal y como has comentado la situación de bonanza cambió, pero esperemos que ahora se vaya mejorando.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ, ALKARBIDE, EB, PP)

Aurkako botoak: 5 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- KONTRATUAK LUZATZEA:

a.- Eguneko Zentroa kudeatzea.

Gizarte ongizateko batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia onartu da:

“GOXARA, S.L.rekin Loinatz Eguneko Zentroa kudeatzeko eta erabiltzeko kontratua beste urte beterako luzatzea 2009ko prezioei KPI aplikatuz.”.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Ingurune irekiko programa eta esku-hartze familiarra programak ematea.

Gizarte ongizateko batzordeak proposatuta, aho batez ondorengo erabakia onartu da:

Gizarte Ongizate Batzordeak proposatu du Ingurune irekiko programa eta Esku-hartze familiarra programak emateko Lorratz Elkartearekin sinatuta dugun kontratua beste urtebeterako luzatzea, 2009ko prezioei KPI aplikatuz.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Malu Valles, gizarte-ongizateko lehendakariak, gizarte-ongizateko batzordearen proposamenaren berri eman du:

“LANKIDETZA-HITZARMENA, BEASAINGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO BOTIKARIEN ELKARGOAREN ARTEAN, etxez etxeko laguntza zerbitzuko erabiltzaileen artean botiken erabilera optimizatzeke programa garatzeko

Beasainen, 2009ko an

Beasaingo udalaren izenean, Patxi Plazaola Alkate jauna, eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren izenean, elkargoko Lehendakaria Karguduna Francisco de Asís Echeveste jauna.

Parte-hartzaileek dituzten karguen ordezkaritza dutelako hartzen dute parte, eta, dagozkion eskumenak erabiliz, elkarri aitortzen diote egintza hau burutzeko ahalmena eta eskumena.

1. *Hitzarmenaren helburua Beasaingo Udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren artean erakundeen arteko lankidetzarako hitzarmen-markoa ezartzea dela. Horrela, bi erakundeek pertsonen bizi-maila eta beharrezko arreta-mailak hobetzearen eta handitzearen alde egiten dute lan.*
2. *Gizarte zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak gizarte Zerbitzuen sistemaren Prestazio Orokorren barruan honako hiru aurreikusten duela:*

laguntzeko jardueren bitartez, interesatuaren etxean bertan zerbitzuak edo elkarbizitza-programak jasotzea.

3. *Botikarien Elkargoak bere helburuen artean honako hau duela: botikari-lanbidearen jarduera herritarren osasuna bultzatzeko eta erabiltzaileei farmazia asistentzia egokia eskaintzeko izatea, eta, horretarako, gainerako erakunde publikoekin beharrezko lankidetzak ezartzea.*
4. *Bai Beasain Udaleko Gizarte zerbitzuen Departamentuak, bai Botikarien elkargoak ondo ezagutzen dituztela botikak eta farmazia-zerbitzuak eskuratzeko dauden arazoak; halaber, ondo dakite hainbat pertsonak —bere kabuz moldatzeko erabateko gaitasuna ez dutelako edo bestelako arrazoiengatik— botikak erabiltzeko eta kontrolatzeko zailtasunak dituztela. Horregatik, eta farmazia-zerbitzuak jasotzeko eta botikak erabiltzeko mugak gainditzeko xedearekin, bi erakundeek lankidetzak hitzarmena sinatzea erabaki dutela. Horri esker, aipatu arazoak gainditzeko espero dutela, eta programan parte hartuko dutenek botikak egoki erabiltzea ere bai.*

Beraz, bi alderdiek honako Hitzarmena sinatzen dute ondoko hitzartzeen arabera.

HITZARTZEAK

LEHENENGOA.- Helburua

Hauxe da hitzarmenaren helburua: Beasaingo Udalaren Etxez Etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten pertsonak botikak egoki erabiltzea, euren ziurtasuna eta eraginkortasuna bultzatuz. Programaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- *Gaixoei beren botikak ezagutu eta hauek nola erabili irakastea.*
- *Gaixoak errezetatutako botikak medikuak agindu moduan jasotzen laguntzea.*
- *Tratamenduarekiko atxikipena hobetzen laguntzea (tratamenduaren betetzea)*
- *Botikekin zerikusia duten arazoak identifikatu, adibidez bikoiztea eta huts egitea eta botikek eragin ditzaketen ondorio txarrak aurre ikusi edo saihestea.*
- *Etxez etxeko laguntzaileei edota zaintzaileei euren lana erraztea, botiken hartze, zainketa eta emateari dagokionean.*

BIGARRENA.- Onuradunak

- 1. Botiken erabilerari buruzko programa honen onuraduna izateko beren etxean bizi eta etxez etxeko laguntza zerbitzua jaso behar da, beti ere, mediku arduradunak ez badu programan parte hartzeko bere ez adostasuna adierazi.*
- 2. Programan parte-hartzea erabat borondatezkoa da, eta baldintzen onarpena eskatzen du, 1. eranskinean ageri den dokumentua sinatu behar da jakinaren gaineko baimena emateko.*
- 3. Programa honen erabiltzaileek edozein unetan utz dezakete programa, bete behar bakarra jakinaraztea da, zerbitzua jasotzen duen farmazia bulegoen eta etxez etxeko laguntza zerbitzuan.*

HIRUGARRENA.- farmazia parte hartzailea

- 1. Parte hartuko duten farmazia bulegoek aldezturik Gipuzkoako Botikarien Elkargoak onetsiak izango dira.*
- 2. Ziurtagiria jasotzeko, farmazia bulegoak honako hauek izan beharko ditu, gutxienez dagokion prestakuntzarako ikastaro teoriko-praktikoa jaso duen farmazeutiko bat, farmaziako titularrak programara atxiki eta 2. eranskinean ageri den dokumentua bete eta Gipuzkoako Botikarien Elkargora bidali behar du.*
- 3. Borondatez izen eman duten farmazia bulegoak programa Gipuzkoako Botikarien elkargoak adierazi bezala betetzera derrigortuta daude, baita zerbitzua zuzenki ematera, debekatuta dago zerbitzu hau beste batzuen ardurapean uztea edo azpikontratatzeari, gainera beste norbaitek azpikontratatu moduan bere zerbitzua eskainiz gero, behartuta daude salatzeri.*

LAUGARRENA.- Prozedura.

- 1. Gizarte zerbitzuen Departamentuak zerbitzu honen onuradun izan daitezkeen pertsonen zerbitzu honen berri jakinaraziko die.*
- 2. Programa honetan parte hartu nahi duen erabiltzaileak edo bere ordezkari legalak Gipuzkoako Botikarien Elkargoak onetsitako farmazia bat aukeratu behar du.*

3. *Udaleko Gizarte Zerbitzuek sinatu eta zigilua ipinita 1.eranskinean ageri den baimen informatua emateko dokumentua emango diote, erabiltzaile berari edo bere zaintzaileari aukeratutako farmaziara joateko.*

Pertsona onuradunak, bere zaintzaileak edo gizarte laguntzaileak aukeratutako farmazian programan parte hartzeko baimen informatua emateko dokumentua sinatu eta zigilua emanda entregatuko du.

4. *Farmaziak Gipuzkoako Botikarien Elkargoari programan izandako izen-emate edo bajen berri emango dio, dagokion baimen informatua kopia dokumentua igorritz.*
5. *Baimen informatu dokumentua sinatu ondoren aukeratutako farmaziak elkarriketa egingo dio onuradunari edo zaintzaile edo bere etxeko laguntzaileari, programa egoki betetzeko ahalik eta datu gehien eskuratzeko, Gipuzkoako Botikarien Elkargoa onarturakoaren arabera. Datu hauek bere mediku arduradunarekin alderatuko dira.*
6. *Era berean farmazeutikoak onuradunaren tratamendua aztertuko du, sendagaiei dagozkion arazorik izan daitekeen antzemateko, esaterako elkarerreragina, bikoizketa, dosi eta denbora tarte desegokia. Halakorik balitz, mediku arduradunarekin harremanetan ipini eta elkarrekin erabakiko lukete zer egin zuzentzeko.*
7. *Une horretatik aurrera, farmazia bulegoak onuradunarentzako errezetak jasotzen dituen bakoitzean legalki aurreikusitako moduan banatuko ditu. Banatu ondoren botikak zaintzapean gordeko ditu adostutako eperako dosi pertsonalizatuak prestatzeko. Sistema hauek epeka prestatu eta entregatuko dira. Sistema pertsonalizatuarekin batera, tratamendu bakoitzaren hasieran, gaixoari, zaintzaileari edo etxez etxeko zaintzaileari botika bakoitzari dagokion prospektua emango zaio eta nola mantendu adieraziko zaio.*
8. *Dosifikazio sistema pertsonalizatuko epe bakoitza bukatzen denean edo tratamenduan aldaketaren bat dagoen bakoitzean, onuradunak gelditzen zaizkion sendagaiak botika bulegora itzuli egingo ditu, dauden egoeran daudela, berriak jaso aurretik.*
9. *Hilero, farmazia bulegoak Gipuzkoako Botikarien Elkargora programaren ebaluazioari buruzko neurgailuak eta adierazgarriak igorriko ditu, honetarako onuradun bakoitzak 3. eranskineko datu orria beteko du.*

BOSGARRENA.- Beasaingo Udalaren betebeharrak

1. Erraztasunak eskaintzea, lankidetza-hitzaumenaren helburuak bete daitezen.
2. Aukeratutako erabiltzaileek, zaintzaileek edo etxeko laguntzaileek botiken erabilera optimizatzeko zerbitzua prestatuko duen farmazia libreki aukeratuko dutela bermatzea.
3. Programa garatzeko Udalak izango duen beharrezko informazioa Gipuzkoako Botikarien Elkargo Ofizialari eskaintzea, baina, beti ere, datu pertsonalak babesteko legean ezarritakoa betez.

SEIGARRENA.- Sendagaigileen Elkargoaren betebeharrak

1. Erraztasunak eskaintzea, lankidetza-hitzaumenaren helburuak bete daitezen.
2. Onetsitako farmaziek parte hartuko dutela bermatzea.
3. Botikariei eta etxeko laguntzaileei programari buruzko prestakuntza ikastaroak antolatzea.
4. Programa garatzeko beharrezko informazioa eskaintzea Beasaingo Udalari.

ZAZPIGARRENA.- Programaren finantzaketa

Programa burutzeko kostuak parte hartuko duten onetsitako farmazien kontura izango dira.

Osasun Sailak diru-laguntzak emango dizkie hitzaumen honetan aipatutako programan parte hartuko duten onetsitako farmaziei, onuradun bakoitzari emandako zerbitzuen arabera. Eta, beti ere, 2009 otsailaren 25ean Osasun Sailak eta EAEko Botikarien Elkargoek sinatutako hitzaumenean hitzartutakoaren arabera.

ZOZTIGARRENA.- Programa ebaluatzeko batzordea

Hitzaumen honen ondorioz burutuko diren ekintzen jarraipena eta ebaluazioa egiteko batzorde parekidea eratuko da, eta, bertan, alderdietako ordezkariak hartuko dute parte. Batzordeak proiektuaren funtzionamendu egokia bermatzeko egin beharrekoak egingo ditu, eta burututako ekintzen memoria idatziko du..

BEDERATZIGARRENA.- Lankidetzarako bestelako bideak

Programan parte hartuko dutenen prestakuntza hobetzeko egokitzen jo daitezkeen bestelako lankidetza-bideak ere jorratu ahal izango dira. Halaber, bide horiek bestelako

lan hauetarako ere jorratuko dira: proiektu berritzaileak diseinatu eta gauzatzeko, egoki iritzitako ikerketak egiteko, informazioa trukatzeko eta, oro har, erakunde sinatzaileek dituzten helburuak lortzeko baliagarriak izango diren eskaintzak egiteko.

HAMARGARRENA.- Babesleak

Programa hau publikoki aipatzen denean, Beasaingo Udalak eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoak elkarri onartuko diote bi erakundeak direla programaren egile.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena eta hitzarmena amaitzeko arrazoiak

1. *Lankidetza-hitzarmenak sinatzen den egunean hartuko du indarra, eta 2009ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Dena dela, ezer esan ezean, hitzarmena urtebeteka luzatuko da. Hala ere, alderdietako batek salatu egin ahal izango du hitzarmena, baina, gutxienez, indarrean dagoen epealdia bukatu baino bi hilabete lehenago adierazi beharko du argi eta garbi.*
2. *Hitzarmena amaitzeko arrazoiak honako hauek izango dira:*
 - a) *Edozein klausula ez betetzea; nolanahi ere, horrek ez dakar berekin dagozkion ordainak edo/eta kalte-ordainak ez ematea.*
 - b) *Etxe-laguntzarako zerbitzuek artatutako pertsonen medikazio erabilera hobetzeko, 2009ko otsailaren 25ean Osasun Sailaren eta EAEko Botikarien Elkargoen arteko lankidetza hitzarmena iraungitzea.*
 - c) *Alderdi sinatzaileen adostasunez hitzarmena amaitzea erabakitzea.*
 - d) *Alderdietako batek uko egitea; kasu honetan, bi hilabete aurretik abisatuko da.*
 - a) *Aurreikusitako epeak eta luzapenak ez betetzea.*

Adostasuna agertuz eta ondorio guztietarako horrela jasota gera dadin, hitzarmenaren bi aleetako orri guztiak sinatzen dituzte bi alderdiek, esandako egunean eta tokian."

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

9.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2009ko abenduaren 15etik, 2010eko urtarrilaren 25era bitarte Alkateak emandako ebazpenak.

Ezagutzera eman dira, 2009ko abenduaren 15etik 2010eko urtarrilaren 25era bitarte Alkateak emandako ebazpenak.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

AUZOETAKO HIRI ANTOLAKUNTZAKO EGITASMO BEREZIA

Fernando Boada jaunak: "En relación al PEOU de los barrios, quisiera dejar constancia de lo siguiente: si bien se han desestimado las alegaciones presentadas, respecto de la segunda en la comisión de urbanismo se propuso efectuar la devolución de lo abonado por el recibo de contribución al haberse modificado la clasificación del suelo. Esto es, con las Normas Subsidiarias paso a ser urbano un terreno que hasta entonces era rústico, pero el Plan Especial efectúa un ajuste de límites y esa porción de suelo vuelve a ser nuevamente no urbanizable."

BARRERAS ACÚSTICAS

Fernando Boada jaunak: "Quisiera saber si el Sr. Alcalde tiene intención de ejecutar la partida presupuestaria de 100.000 €, que se consignaron en el presupuesto de 2008 para la instalación de las barreras acústicas y atenuar así el ruido producido por la circulación de los trenes y continuar con lo ejecutado mediante el conocido Plan Zapatero en el ejercicio 2009."

PARQUE ARANA

"Quisiera saber si el Sr. Alcalde tiene intención de ejecutar las obras de mejora y acondicionamiento del parque de la calle Jardines, conocido como parque Arana, o sólo si existiera algún otro programa futuro, Plan E, tal y como lo ha expresado públicamente el primer teniente de alcalde."

Alkatea jaunak (EAJ): "Se han puesto unos cuantos metros lineales de barreras y ahora estamos analizando la situación. Cuando tengamos las liquidaciones correspondientes es un programa que habrá que liquidar. En lo que estamos trabajando e insistiendo es para que la Diputación actúa en la N1. Está actuando en algunos municipios, Billabona, Lasarte, Renteria, que son puntos por ellos determinados. Beasain es uno de esos puntos, pero los ajustes presupuestarios puede que lo retrasen. Respecto de la prolongación, nosotros tenemos que evaluar."

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): "Yo no creo que dijera eso porque no es así, aunque yo también leí lo que se publicó. Lo que pueda pasar en propuestas futuras del gobierno central....Solemos tener algunos proyectos

adelantados, pero en el parque de Arana se está mirando qué posibilidades hay y que se puede hacer. Lo que si se ha hecho es un proyecto para la calle Lorategi. Es probable que yo dijera eso, porque el proyecto se ha hecho previendo que se pueda ejecutar esta obra. Lo que se pretende es eliminar las barreras arquitectónicas teniendo en cuenta la problemática existente.”

TRENBIDE KALEA

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Aparte de quedar la obra inconclusa, se está valorando los efectos de esa obra y no está muy claro por qué no se ha ejecutado. El tema es que hay una visita prevista para el día 22 de diciembre, y no se ejecuta porque el día 21 está previsto el evento para la colocación de la primera piedra para el Tren de Alta Velocidad. Parece que no se ejecuta porque el Alcalde entiende que es demasiada publicidad que un día esté el Consejero y otra día esté, pues los que están. El Subdelegado acepta el tema y se traslada al 11 de enero. Todas estas subvenciones conllevan un tema de publicidad. Hay que poner unos paneles diciendo quien paga y quien paga lógicamente exige. La colocación del panel en este caso se retrasa hasta el último momento. Yo hago un par de llamadas el mes de diciembre y me dicen: se pone en estos días, y luego por la nevada, las fiestas, el cansancio, el cava... Todo puede influir, y se puso el día 7 de enero. La inauguración se hizo el día 11. Se hace la foto de rigor, y al de dos o tres días desaparece. Es una cosa misteriosa. Lo que sorprende es que algunas cosas se hacen con una agilidad tremenda, y otras no sabemos por qué, no ocurre lo mismo. En Zaldizurreta tenemos un rotonda y tenemos un panel maravilloso que lleva no sé cuanto tiempo. Lo que no sabemos es si está porque tiene que estar o paga un canon al Ayuntamiento por estar ahí. Me gustaría saber estas cositas.

A renglón seguido, felicitamos sinceramente al concejal del PP el haber conseguido 300.000 € para Beasain. Nos alegra profundamente, la pena es que no ha sido más. El otro día un perdedor comentaba de este Gobierno Vasco que no era legítimo ni aceptado por la ciudadanía pero lo cierto es que este Gobierno ha dado para Beasain 300.000 €. Pero eso no obsta Julio para que no te enteres de que se ha caído el tejado de la carbonera. Me gustaría saber qué es lo que ha ocurrido y por qué se ha caído ese tejado.”

Algo parecido tenemos en deportes. Hay quejas permanentes en el polideportivo y si no se corrige algún día va a haber un problema serio. Se hace un acuerdo con los pueblos colindantes, que me parece estupendo, pero vamos a ver en qué redunda. Hay una queja de unos usuarios que imputan a la delegada de deportes, y ella saca una nota de prensa diciendo que no es de su competencia porque lo es del Alcalde.

Pero, compañera, guste más o guste menos, estamos en un gobierno de coalición y participamos y si el Alcalde me ningunea con sus historias, lo que hago es presentar mi dimisión.”

Alkate jaunak (EAJ): “Has hecho tu speech político. La propaganda la que os interesa. Me parece muy bien. Yo estuve en Sevilla y tenían paneles de medio metro y allí la alcaldía la tiene el partido socialista. Respecto al cambio del 22, lo comenté con el Subdelegado y dijo que si.

En cuanto a lo que tienen que hacer el resto de partidos políticos, ellos son los que tienen que decidir.

Finalmente quiero felicitar a Julio por las gestiones que ha hecho en su partido para que en los presupuestos del Gobierno Vasco, se contemple esa consignación. En su tiempo Julio era un florero de la comisión de Igartza...Cada uno sabemos donde estamos y no merece la pena seguir discutiendo.

El problema de la viga ocurrió un viernes a última hora. Yo estaba en Bilbao, y algún vecino dio el aviso. No fue por la climatología. Aitor se puso en marcha y lo que se hizo con toda urgencia fue sujetar. No se le avisó directamente al presidente de la comisión, pero en un momento dado es preciso tomar decisiones y las asume el Alcalde. En estos momentos no hay peligro, pero de aquí a un par de meses se cambiará la viga, que en su momento se colocó por así exigirlo Diputación, ya que también ha contribuido con un montante importante. Hay que decir que Diputación ha subvencionado con un millón y pico, luego no todas las flores van a ser para una parte. Subvenciones hay de distintas entidades. Hoy mismo hemos recibido una del departamento de Interior por haber quitado unas pintadas. Nuestra obligación es acceder a las ayudas económicas que las distintas Instituciones promueven, ya que el dinero es de todos los ciudadanos. No es ni de un partido ni de otro.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “Seguimos sin saber por qué permanece un panel de publicidad de una empresa privada.”

Alkatea jaunak (EAJ): “Por olvido. Ahora mismo le avisaré al responsable para que se haga cargo de ello.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Yo la información que tengo es que Diputación te obliga a tener las vigas de madera antigua, y una de las vigas falló.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.

